

XagunArtea

2012ko apirilaren 30a

Xagun aldizkaria

76. alea

Urrezko aizkorako saioa



Joan den apirilaren 15ean, Urrezko Aizkora edo Eusko Label txapelketako saioa izan zen Zerainen. Dozena bat aizkolarik parte hartu zuten eta tartean izan zen Xabier Dorronsoro herritarra ere. Tamalez, aguazilak ezin izan zuen hurrengo fasera pasa, jendez gainezka zegoen frontoiko saioan.

Partzoneriko "Dominika" txabola herritarren eskura

Partzoneriak badu "Dominika" izeneko txabola bat. Orain arte beste erabilera batzuetarako erabili izan da borda hau, baina orain, Partzoneria osatzen duten herrietako biztanleen eskura jartzea erabaki du Partzoneriko juntak. Horrela bada, txandan-txandan, gure herrietako edonork alkilatu ahal du borda hau.

Horretarako, hainbat baldintza daude: gehienez 8 pertsonak egon ahalgo dute batera txabolan ostatu hartuta, eta gutxienez horietako batek Partzoneriko herriren batekoa behar du izan. Gau bakoitzeko 20 euro ordainduko da eta berme moduan 100 euro jarriko dira aurrez. Herri bakoitzak urtean zehar egun batzuk izango ditu. Hauek dira 2012rako Zerainek: ekainak 16-30 artean, irailak 16-30 artean eta abenduak 16-31 artean. Informazio gehiago udaletxean.

San Isidro eguna maiatzaren 19an ospatuko da aurten



Baserritarren eguna, San Isidro eguna, asteartean denez aurten, maiatzaren 19rako, larunbata, antolatu du ospakizuna Udalak. Azken urteotako bideari jarraituz, herritarrok elkarrekin bazkalduz ospatuko dugu baserritarren jaia.

Herri-mugak ezagutzeko bigarren ibilaldia maiatzaren 5ean egingo da



Iaz hasitako lanari jarraituz, Oa kultur elkarteak herri-mugak ezagutzeko eta katalogatzeko lanetan jarraitzen du. Horrela, herri-mugetako bigarren ibilaldia antolatu du maiatzaren 5erako. Irteera goizeko 9etan izango da herriko plazatik.

Weborri berria dugu Zeraingo eskolarako

Apirilaren 15ean, Mutilon elkartu ginen Gipuzkoako Eskola Txikien elkartetik sortu den weborri berrien aurkezpenean; bertan eskola bakoitzak bere weborria izango dugu eta bertan informazio eta argazkiak jartzeko aukera izango dugu bai irakasleek eta baita ere gurasoek. Gaur egun oraindik bere funtzionamendua ikasten hasi gara eta guztion irakasle Gotzon Mutiloako gurasoa izan dugu. Beraz informazioa eta argazkiak jartzen goazen heinean, weborri osatuagoa izango dugu. Helbidea www.zerain.eskolatxikiak.org da. Aurkezpenaren ondoren, Mutiloako elkartearen afari-merienda egin genuen haur eta gurasoek.



Bestalde, maiatzaren 5ean Goierriko eskola txikien eguna ospatuko da Itsasondon. Mendi buelta, jolasak, bazkaria eta pailazoekin egun mun-

diala pasako dugu zeraindarrok ere Gabiria, Olaberria eta Itsasondoko lagunekin batera.

Basarte Guraso Elkarte

Liztormendiko batzar nagusia maiatzaren 12an izango da

Urteko batzar nagusia egingo du Liztormendi elkarteak maiatzaren 12an, larunbata, eguerdiko 12etan. Bazkide guztiei dei egiten zaie bertara gertura daitezen. Gai zerrendan urteko gorabeherak, diru-kontuak eta junta berritzea egongo dira. Batzarraren amaieran, ohi bezala, mokadutxo egingo da eta aurten mende erdia betetzen duenez, elkarrearen ospakizunez hitz egiteko aukera ere egongo da.

Tentsio altuko kablearen kontrako banderolak udaletxean daude



Zeraindik ere pasa asmo duten tentsio altuko kablearen kontrako banderolak udaletxean jaso ditzakete aurrez eskatu zituzten herritarrek. Jasotzerakoan 5 euro ordaindu behar dira.

XaguArtearen oharra

XaguArtearen ale honetan argitaratzeko idatzi bat bidali digute hainbat herritarrek. XaguArteko eduki guztia komunikazioko komisio edo lantaldearen esku dago une honetan. Eta komunikazioko komisio horrek artikularen edukia ikusita, erabaki du ez argitaratzea XaguArtean, iritzia eta interpretazioa zeudelako bertan. XaguArtea herritar guztientzat irekita dago, baina ez da iritzia emateko plaza bat, herritarrengana herriko intereseko informazioa helarazteko gunea baizik.

Galtzen ari diren hitzak

Bagoaz orain dela hiru bat aste, aterkia eskuan, Xanti eta biok Zubiberri aldera oinez. Larunbat goizeko ibilaldia, aspaldiko partez. Eguraldiak ez laguntzen ordea: euri eta lanbro, goizetik hasita. Halako batean, Otatzatik behera txakolin-mahastiaren parean goazela, hor esaten dit: "bai eguraldi ziputze". Berehala galdetu diot: "zer esan dek?" Eta berak: "ziputze". Normal-normal atera zaio: Zerainen, adin batetik gorakoan artean, ziputz hori hitz arrunta (izan) den seinale. Inoiz entzun gabe nengoen,

Ziputz

eta harritu egin naiz. Batetik, gero eta ezagunago gertatzen zaizkidalako Goierriko hitz bereziak eta, halere, hitz hori inoiz entzun gabea nintzelako. Bestetik, berriz, hitz horren antzeko zerbaiten bila nabilelako azken hilabeteotan, *giputz* eta *Gipuzkoa* nondik datozen jakin nahirik, eta gutxien uste nuen lekuan aurkitu dudalako antzeko hotsa duen zerbait. Ba ote du *ziputz* hitzak *giputz*-ekin zerikusirik? Aurrera egin dut beraz, euripe itxian "zer esan nahi dek *ziputz* horrekin?" Eta berak:

"petrala, eguraldi petrala. Pertsoekin ere hala esaten diagu: Joxemiel zeharo *zipuztuta* zegok gaur". Horra hitza hamar segundotan definitu: "eguraldi *ziputza*" batetik, "lagun hau edo hori *zipuzturik* dago" bestetik: *petrala, petraldurik*.

Herenegun ilunabarrean hor deitzen dit Xantik telefonoz, asteburu honetan *Xaguarte* tokatzen zaigula gogoraraziz. Pentsatzen aritu direla herrian, zer hitz landu, eta *ziputz* horrekin akordatu direla. Hiztegian ere birgatu dutela, eta zerbait badato-

rela. Ea beraz hitz horri helduko ote niokeen. Baietz: konforme. Eta horrela jo dugu hiztegiara. Baita sorpresa hartu ere. OEHn ez dator ez *ziputz* eta ez *siputz*. Galdezka hasi naiz neure buruari: "eta orain zer egin behar diagu?" Halakoetan, Elenarekin-eta, hartutako bidetik joko dugu oraingotan. Bila gabiltzan *ziputz* horren antzeko hitzik ba ote dago hiztegian? Galderak berak du gakoa, jakina: "antzeko" izateak zer esan nahi du? Hasierako bokala bakarrik aldatzea, adibidez? Egin dezagun proba *zaputz*, *zeputz*, *zoputz* eta *zuputz* formekin. Lehenengoa (*zaputz*) eta azkenekoa (*zuputz*) dira hiztegian sarrera duten bakarrak. Has gaitezen *zaputz* horrekin. Euskarak badu joera, i eta a bokalhotsak alternatzeko: batzuetan hitz hasieran alternatzen ditu bokalok, eta besteetan hitzarte osoan. Joera handia izan dugu euskaldunok, horrela sorturiko hitz-bikoteak elkarturik emateko: *dimbili-danbala*, *zipli-zapla*, *tirriki-tarraka*, *plisti-plasta*, *tipili-tapala*, *zirripi-zarrapa*, *zirti-zarta*, *zirriki-zarraka*, *zingulu-zangulu*, *zingun-zangun*, *zurruntz-zarruntz*, *tipus(t)-tapas(t)*... Badira nahasiagoak ere: *ikusimakusi*, *kiskilimaskili*... Hotsuztarduraz sortutako hitzak dira horiek: terminologia teknikoan *Ablaut*-taldeak. Ba ote dago, nolabait, *ziputz* eta *zaputz* hitzak multzo horretan sartzerik? Osorik ez: *ziputz-zaputz* ez dirudi inork esan duenik lehen, *zingulu-zangulu* moduan (dakidala ez dago inon jaso, behintzat). Baina *zaputz* hitza bada eta, itxuraz, ez dabil Xantik esandako adieratik urruti. Hitz ezaguna dugu *zaputz*. Ezagunak dira *zapuztu* eta *zapuzti* ere. Horiek (*zaputz* eta *zapuztu* bereziki) ez dira galtzen ari; ala horiek ere bai? Zer diozue zeraindarrok, zahar eta, bereziki, gazte?

Gatozen harira. Informazio aberatsa dakar hiztegiak *zaputz* hitzaz. Hona, labur-labur, zer dioen. *Zaputz* eta *saputz*, biak erabiltzen dira Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Iparraldean ez (gero, ordea, besterik ageri da *zapuzti* hitzarekin: han ere ezaguna dute). Adjektiboa da hitza eta "esquivo, huraño, desdeñoso" esan nahi du: "*saputz*, *triputs*, el esquivo (está) vacío de estómago". Etxarri-Aranatz inguruan jaso da ondoko hau: "*jende zaputza da ori*". Hala ematen

du Gotzon Garatek: beste zenbait lekutako *zipoitza*, *zitalla*, *petrala*, *kaskagorra* omen da *zaputza*. Pertsona batzuen izaera, aldartea eta nortasuna azaltzeko hitz egokia da *zaputz*: aspaldi esan zuten Mendiburu oihartzuarrak: "gelditzen da negarrez edo gutienean illunta *zaputz*". Antzera jarduna dugu Txomin Agirre legazpiarra: "nork esan zenbat eratako anima gauden? [...] alaiak, illunak, argiak, motzak, ausartak eta *zaputzak*". Baita Txillardegizena ere, Leturiaren Egunkari Ezkutuan: "egun biz bein, *zaputz* eta otz nagoela entzun bear". Orobat Gandiaga olerkaria, Arantzazuko bere kabitik: "*egi latzaren galtzairu sendoz / ta izar zaputzen minduraz*". Garbi dago, beraz, pertsoneri (eta, hortik hedatuz, bestelako izakiei) buruzkoetan hurbil dabiltzala han-hemengo *zaputz* eta Zeraingo *ziputz*. Eta eguraldiaz zer? Ikus Gotzon Garatek Nafarroako Bortzirietan jasotako hau: "denbora *zaputza* (txarra)" (junto a *muzkiña*, *tutula*, *xirxila*, *ustela*, etc., de otras zonas). Justu-justu Xantik txakolin-mahastiaren parean esandakoa alegia. Hiztegiak badakar *zuputz* ere. Hona Damaso Intza zenak Nafarroan jaso: "gauza guziek uzten (ditu) *zuputz*". Bere esanean "azpikoz gora uzten ditu". Ez da hitzez hitz goiko definizioan sartzen, baina ez dabil urruti.

Eta *zapuztu*? Antzeko formak ditu: *zapuztu*, *zapuztu*, *xepostu*, *zapoztu*, *sapoztu*, *sapuztu*, *sapostu*, eta *sapustu*. Bide beretik doa adiera: "amohinarse, ponerse de mal humor; ponerse esquivo". Horrelakoak dira adibideok: "*zapuztuta dago*" edo "alkarrekin *zapuztuta dabil*". Xenpelarrek kantatua izan behar du "arduarekin adiskide ta / gizonarekiñ *zapuztu*". Azpeitiko plazan kantatua da itxuraz, orain dela ia 120 urte, "kulpa zerorrek eta / zertan *zapuztu*?". Mikel Atxaga zenak honela zioen: "noiz-nai asarre, *zapuztuta*, lanerako gogorik gabe, goibel", eta Nemesio Etxanizek "ez adi *zapuztu* / ur zikin nastuan". Uztapidek, azkenik, honela bota zigun bertsoa: "orain mututu naizela eta / ez al zera *zapuztuko*? Badu hitz horrek beste adiera hau ere: "desmejorar (un animal o planta)". Bergaran jaso du Elexpuruk: "kaxkartu itten danian gauzia: *zapoztu* ein ddok. Landare bat

ero, txita bat ero makaldu, *zapuztu*", eta Txomin Agirrek: "[landare] zarra iñausitzen danean *zapuztu* egiten da, gazteak indar berria artzen du". Honela utzi zigun Iztueta euskaltzaleak bere gogo-nahia argiturik: "bestela *zapuztuko* da euskara, muixinduko dira euskaldunak eta iges-egingo dute fueroak". Orixek esana da azkenik, Jainkoaren bila zebilelarik "gogorame-na geiegi zirikatzen badu, *zapuztu* egiten zaio". Hirugarren adiera ere bada tartean: "repudiar, rechazar; abandonar las aves el nido antes de la procreación". Adiera hori du hurrengo esaldiak: "*zapoztu* ditu arrautzak gure uso zuriak, nuestra blanca paloma ha repudiado los huevos". Abstrakzio-indar biziko adiera da hori. Demagun Mitxelena esaldi hau: "horrela izatekotan Mendibururekin batean ia euskal literatura osoa erabat *zapuztu* beharko (ge)nuen". Hor dago azkenik *zapuzti* edo *sapuzti*, Azkueren esanean "huraño, mohino, murriático". Mutiloako Gerriko zenak idatzia izan behar du, orain dela 200 urte inguru, "puntosua edo *zapuztia*". Eta iparraldean argitaratua da, orain dela mendeerdi, "martxoan haize ta apirilari busti, / urtea ez da izanen nehola *zapuzti*".

Ondoriorik ba ote? Akaso bai: *zaputz* eta *ziputz* gauza berbera direnik nekez esan liteke. Adieraz oso antzekoak dira ordea, hainbat puntutan, eta formaz ez dabilta urrun: *zipoitza*, *zuputza*, *zapuztu*, *xepostu*. Behar-beharrezko hitza da *ziputz/zaputz* hori, hiztunon arteko jardunean. Hor ez du balio esatea, transformazio teknologikoak eragindako galera dagoenik tartean. Pertsona *alaiak* eta *tristeak*, *eskuzabalak* eta *prakaestuak*, *lagunkoiak* eta *ziputzak* beti izan dira munduan, eta gero ere halaxe izango dira: zer dela-eta baztertu dugu, beraz, hain kontzeptu zentrala? Luze-zabal dabilen "kabroi-alena" baliteke *ziputza* izatea, eta *zipuztu* den laguna "moskeatzea" ere bai. Zergatik ordea? Beste zerbaite dabil hor, gure kaltean: erdaraz bizi dugu, gero eta maizago, lagun arteko solas bizi, gatz-piperdun, aldiari jolas-koi eta aldiari haserrekorra. Pitagorasen teorema euskaraz ikasteak ez digu funtsezko hutsarte hori estaltzen. Hor dago kontua.

Mikel Zalbide

Babesetik

MARTXOA	al	ar	az	og	or	lr	ig
				1	2	3	4
Euria (l/m)	GUZTIRA: 79.5 l.			0	0	0	10
C° altuena	ALTUENA: 25°			16	20	18	14
C° baxuena	BAXUENA: 1°			3	5	6	7
	5	6	7	8	9	10	11
Euria (l/m)	5	12	2	5	0	0	0
C° altuena	9	10	12	9	12	14	13
C° baxuena	5	4	3	7	3	2	6
	12	13	14	15	16	17	18
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	8	2
C° altuena	16	19	23	25	21	19	14
C° baxuena	7	4	5	7	5	8	5
	19	20	21	22	23	24	25
Euria (l/m)	18	1	16,5	0	0	0	0
C° altuena	10	9	8	14	18	22	23
C° baxuena	4	4	5	1	2	11	7
	26	27	28	29	30	31	
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	
C° altuena	22	21	25	24	22	21	
C° baxuena	7	12	8	6	6	6	

Udaberria aurreratuta

Martxoaren hirutik bi berez negua bada ere, hilabete guztian udaberri giroa izan dugu nagusi. Guztira 80 litro inguru bota ditu hamar egunetan (beste urte gehienetan baino gutxiago) eta tenperatura epelak izan dira: 20 gradutik gora egun dezentetan eta 0tik behera jaitsi gabe. Udaberria aurreratuta, herriko usapalak ere lanean hasi eta kabi politak egin dizkigute arrautzak jartzeko. Iruditan apaiz-etxearen pareta kontrako mahatsondoan dagoena ikus daiteke.



Manchestergo musikariak gurean



Joan den maiatzaren 22 arratsaldean, Ingalaterrako Manchestergo musikari talde batek kontzertua eman zuen Mandio tabernan. Euskal Herria bisitatzeko zebiltzan bisitari hauek ia ezustean Mandion azaldu, musika jotzeko baimena eskatu, eta folk doinuekin alaitu zituzten tabernara gerturatu zirenak.

Landa garapenari buruzko liburuaren aurkezpena

Jaime Izquierdo Vallina asturiarrak *La casa de mi padre* liburua aurkeztuko du Zeraingo kultur etxean, maiatzaren 11n, arratsaldeko 6etan. Landa garapenaren gaia jorratzen duen nobela idatzi du bisitan izango dugun asturiarrak.

Gipuzkoako bola txapelketa maiatzaren 27an

Maiatzaren 27an, igandean, Gipuzkoako bola txapelketa jokatu da Zeraingo Liztormendi bolatokian, lau kategoriatan: haur, gazte, emakume eta beterranoak. Ea herriko bolariak txapelari etxean eusten dioten.

Festak antolatzeko bilera irekia

Aurtengo Andramari jaiak antolatzeko bilera irekia deitu du Oa kultur elkarteak. Maiatzaren 8an, asteartean, iluntzeko 7etan egingo da bilera kultur etxean eta herritar denak gonbidatuta daude parte hartzera.

KZ gunearen ordutegia

Maiatzean KZgunea hilaren 17an eta 31n arratsaldeko 4etatik 8etara egongo da irekita. Ekainean, hilaren 14an eta 28an irekiko dute goizeko 9etatik 13etara.

Garagardo jai Mandion

Apirilaren 20an garagardo jai antolatu zuten Mandio tabernan. Zerbeza ederra lagun hartuta, jai-giro polita sortu zen.

